



Arartekoaren 2020R-613-20 Ebazpena, 2020ko irailaren 17koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendatzen zaio Ertzaintzak Bilboko San Frantzisko auzoan martxoaren 29an izandako jarduketa iker dezan eta berriker dezan adieraziko diren parametroen arabera.

Aurrekariak

1. Bilboko San Frantzisko auzoan lan egiten duten hainbat erakunde sozial eta norbanakoen izenean pertsona ugari kexu agertu dira Arartekoaren aurrean Ertzaintzak aipatutako auzoan martxoaren 29an izandako jarduketa baten ondorioz; jarduketa horrek gazte bati eta haren amari erasan zien.

Kexen arabera, gazteak bide publikoan noraezean ibiltzeko baimena zeukan, gaixotasun mental bat duelako; arratsaldeko lauak aldera etxera itzultzen ari zen, gertuko elikagai denda batean zenbait erosketa egin ondoren; orduan, Ertzaintzako bi agentek geldiarazi zuten, egiaztatzeko gaztea bide publikoan egotea martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak baimendutako pertsonen mugikortasunerako kasuren batean ote zegoen jasota; dekretu horren bitartez alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz.

Kexen bitartez helarazitako eta komunikabideek egun haietan zabaldutako informazioaren arabera, polizien esku hartzean zehar ama eta semea atxilotu egin zituzten, haien aurka indarra erabili zen eta gaztea, halaber, salatu egin zuten aipatutako Errege Dekretuan ezarritako pertsonen mugikortasuna murrizteko neurriak ez betetzeari lotutako administrazio arau hauste bat zela medio.

Informazio berberaren arabera, gaztearen ama lekuan bertaratu zen ertzainei bere semearen osasun mentalaren egoera jakinarazteko, desesperazioko saiakera modura agenteek gaztearen jokabidea uler zezaten eta atxilo har ez zezaten, baina agenteek ez zituzten azaldutako arrazoiak kontuan hartu eta hasiera-hasieratik leku hartatik baztertu zuten; azkenean, amaren aurka indarra erabili zuten.

Kexetan nabarmendu zenez, polizien jarduketa neurritz kanpokoak izan zen eta indarra erabiltzeak ez zuen justifikaziorik izan. Horrez gain, gertaerari agenteek emandako erantzuna desagokitzat jo zen.

Kexek polizia jarduketaren bideo grabazioa izan zuten oinarri, erakunde honetan aurkeztu zena; egun haietan irudiek oihartzun handia lortu zuten sare sozialetan eta komunikabideetan. Bideo grabazioa oraindik eskuragarri dago Interneten, gomendio hau idatzi den unean.

2. Kexak izapidetzeko onartu eta aztertu ostean, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailera jo zuen gaiari buruzko informazioa eman ziezaión.

Eskaera horri erantzunez, Sailak erakunde honi jakinarazi zion gertaeren ondorengo martxoaren 31n barne ikerketa abiatu zutela jardun zuten agenteek diziplina arau haustea egin ote zuten zehazteko.





Segurtasun Sailak baieztatu zuenez, bidenabar, gaztearekiko polizia jarduketaren abiapuntua martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma egoeraren ondorioz ezarritako zirkulazio askatasuna mugatzeko neurriak egiaztatzeko funtzioen esparruan zegoen.

Horrez gain, honako datu hauek ere eman zituen polizia jarduketa horren inguruabarrei zegokienez:

- Identifikatu zutenean, gazteak ez zeraman aldean gaixotasun mentalaren ondorioz bide publikoan ibiltzea baimentzen zion inolako dokumentaziorik; Ertzaintzak lehenago egindako beste jarduketa batzuetan (gaztea tartean zegoela) ez zuen gaixotasun hura izatearen inolako zantzurik agertu. Poliziak esku hartu zuenean gazteak bere osasun mentalari dagokionez egin zuen erreferentzia bakarra honako hau oihukatzea izan zen: *“estoy loco”*.
- Bide publikoan egotea justifikatzeko gazteak azaldu zuen berarekin poltsa batean zeraman landare baten bila joan zela.
- Agenteeek gaztea salatu zuten aipatutako neurri mugatzaileak ez betetzeagatik, agenteen ustez gazteak bide publikoan egotea justifikatzeko emandako azalpenek ez ziotelako horretarako baimenik ematen.
- Salaketa formalizatu ondoren, agenteek gazteari etxera bueltatzeko agindu zioten, baina gazteak, agenteetako batek behin eta berriz egindako eskaerei muzin eginez, osasun larrialdiak gomendatutako segurtasun distantzia hautsi zuen eta agenteei jakinarazi zien COVID-19az kutsatuta zegoela.

Agenteetako batek gaztearen aurka indarra erabiltzea eragin zuten arrazoien berri eman zuen Segurtasun Sailak, honako hau adieraziz: *“Gizon horren jokabide jarraitua desobedientzia-delitua izan zitekeelakoan, atxilotu zuten, gizon horren erresistentziari aurre egiteko, defentsa erabiliz.”*

Informazio horretan ez zen ezer adierazi amaren aurka aplikatutako indarrari zegokionez, kexekin batera aurkeztutako polizia jarduketaren bideo grabazioan filmatutakoa; indar horrek lurrian botata utzi zuen ama, informazio batzuen arabera konortea galdu zuen, eta hala jarraitu zuen polizia ibilgailura eraman zutenean; handik polizia etxera eraman zuten.

Sailak honela justifikatu zuen gaztearen ama atxilotu izana: *“egia da ulertu behar dela ama eragin emozional inportante baten menpe zegoela, baina ama atxilotu zuten Kode Penalean jasota dagoen delitu bat egin zuelako (Agintaritzako agenteen aurkako delitua)”*.

Horrez gain, Sailak jakinarazi zuenez, polizia jarduketa *“tentsio handiko giro batean egin zen, agenteen aurkako oihuen artean eta agenteei objektuak botatzen zizkieten bitartean. Objektu horiek agenteei lesio arinak eragin zizkieten eta gainera, batzuetan hiltzera eraman duen gaixotasun bat harrapatzeko beldurra zeukaten.”*

3. Emandako informazioa ikusita, Arartekoaren aburuz, ondorengo atalean azaldutako arrazoiak direla medio, polizia jarduketaren inguruan Segurtasun Sailak egindako





barne ikerketa ez zen egokitu urriaren 28ko Arartekoaren 7/2011 Gomendio Orokorrean ezarritako parametroetara (II.1.1 atala); Arartekoak sail horri azaldu zion parametro horiekin bat etorriko zen ikerketa egin behar zuela.

Arartekoaren aburuz, halaber, aipatutako sailak ebatzi egin behar zuen agenteei eskatu ahal zitzaizen gaztearen inguruabar pertsonalei erreparatu izana, eta agenteen jarduketa inguruabar horietara moldatzea, eta, dirudienez, gaztea etxera itzultzen ari bazen gertuko elikagaien denda batean mendafina erosten egon ondoren, bide publikoan ibiltzeak babesa izan zezakeen alarma egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7.1.a) artikuluan.

Aurrekoarekin logikoki bat etorritik, erakunde honek Segurtasun Sailari adierazi zion polizia jarduketaren barne ikerketan aipatutako datuak modu egokian aztertu eta argitu behar dituela, baita, hala badagokio, zehapen prozeduran bertan egindakoa ere, gazteak aipatutako Errege Dekretuan ezarritako pertsonen mugikortasuna mugatzeko neurriak ez betetzeagatik agenteek gaztearen aurka aurkeztutako salaketaren ondorioz izapidetzen ari badira.

Indarraren erabilerari dagokionez, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra abiapuntutzat hartuz (II.2.1 eta IV atalak), Arartekoaren aburuz, gaztearen eta amaren aurka erabilitako indarra Segurtasun Sailak proportzionaltasunaren eta justifikazioaren ikuspegitik ebaluatu behar zituen; ez dago jasota aipatutako Sailak horrela egin zuenik, eta balorazio horretan kontuan hartu beharko litzateke sare sozialetan eta komunikabideetan bolo-bolo zabaldutako polizia jarduketaren bideo grabazioa; izan ere, beste frogak elementurik gabe, Sailak ez baitu besterik eman, erakunde honen aburuz horren inguruko kexetan agertutako eragozpenak babesten ditu aipatutako bideo grabazioak.

Arartekoaren ustez, bidenabar, sailak proportzionaltasuna epaitzean aztertu beharko luke, kasuaren inguruabarrei erreparatuz, beharrezkoa izan ote zen indarra erabiltzea edo bestelako disuasio formulak erabili ahal ziren, are bide hertsatzaile ez horren kaltegarriak ere, esaterako gaztearen immobilizazioa; horrela, indarra erabiltzea saihestuko lukete.

Erakunde honek, halaber, sailari jakinarazi zion erakunde honen ustez, bideo grabazioan bertan oinarrituz, gaztearen aurka indarra erabili zuen agenteak ez zuela soilik arauzko defentsa modura erabili; aitzitik, horrela jokatu aurretik aurpegian ukabildada bat eman zion gazteari eta agenteak gaztea erabat immobilizatuta zuenean, bizkarretik besoa oratuz eta aurpegia pareta aurka jarriz, berriz ere polizia makila erabili zuela gaztearen aurka.

Horrez gain, nabarmendu zuen emandako informazioak ez zuela ezer aipatzen bideo grabazioaren arabera amaren aurka aplikatutako indarrari zegokionez.

Bestalde, Arartekoak Segurtasun Sailari jakinarazi zion sailak aztertu egin behar zuela sortutako egoera hartan agenteek emandako erantzuna erabakigarria izan ote zitekeen gertaeren ondorengo bilakaeran, "Bilboko San Frantzisko inguruan atzerriko pertsonekin izandako polizi jardunak" txostenean azaldutakoarekin bat etorritik [8. gomendio zehatza, b) atala].

Bukatzeko, erakunde honen arabera, sailak polizia jarduketa aztertu behar du kontuan hartuz jarduketa Ertzaintzak sorreratik duen funtziora egokitzen ote den,





herritarren askatasun eta eskubideen babesle modura, eta Euskal Herriko Poliziaren Deontologia Kodearen aginduetara ere egokitzen ote den aztertuz, ulertzen baita zabaldutako bideo grabazioaren arabera jarduteko esparru legal hori kasu honetan ez zela errespetatu.

Arartekoak aipatutako oharrak eta balorazioa jakinarazi zizkion Segurtasun Sailari, horri buruzko iritzia eman zezan eta honako informazio hau eman zezan:

- a) Polizia jarduketaren gainean zure sailak egindako barne ikerketaren edukia, horren barruan egindako arakatze jarduerak eta ateratako ondorioak.
 - b) Gaztearekiko eta amarekiko aplikatutako indarraren inguruan egindako balorazioa, proportzionaltasunaren eta justifikazioaren ikuspegitik.
 - c) Bere ustez, indarra erabiltzea eta proportzionaltasunaren printzipioa errespetatzea zein arrazoik justifikatu zuten.
 - d) Gaztearen eta amaren atxiloketen inguruan egindako analisia prebentzioaren ikuspuntutik, ebazteko jokatzeko modu hori egokia izan ote zen kasu honetan sortutako egoeraren modukoak konpontzeko.
 - e) Agenteen gertakaria kudeatzeko moduari eta jarduketak berak ondorengo gertaeretan izan zezakeen eraginaren inguruan egindako analisia eta balorazioa.
 - f) Atxiloketen eta ondorengo erregistroen ondorioz izapidetutako atestatuen kopia, atxiloketak eta poliziaren jarduketa dokumentatu dituztenak, baita barne kontrol eta erabilitako indarra jasota utzi duten dokumentuak ere.
 - g) Inguru horretan instalatutako bideo zaintza polizialerako kameretan poliziaren jarduketa jasoz gero, bideo grabazioen kopia, baita horien inguruan egindako balorazioa ere.
 - h) Kexetan jasotako gaiei erantzun arrazoitua emateko interesgarritzat jotzen duen beste edozein informazio.
4. Segurtasun Sailak erakunde honek eskatutako gaien inguruan erantzun du oharren hurrengo atalean zehaztutako inguruabarretan, baina eskatutako erregistroak eta dokumentuak aurkeztu gabe; ez du, ezta ere, Arartekoak helarazitako balorazio eta jarraibideen inguruko iritzi orokorrik azaldu.

Gogoetak

1. Ordenamendu juridikoak Arartekoari esleitzen dizkion prebentziozko funtzioen erabileran, erakunde honek hainbat ikuskapen mekanismo proposatu ditu poliziaren jarduerak oinarritzko eskubideen errespetuarekin bat datozen parametroekin egokitu daitezen.

Bereziki azpimarratu dugun neurri horietako bat da poliziaren arduradunek ofizioz ikerketarako barneko prozedura bat abiarazteko premia, betiere, agenteren batek behin-behinean jarduera desegokiren bat bideratu duela jakinez gero, gertatutakoa





aztertzeko, jarduera hori behar bezalako bideetatik jazo ote zen egiaztatzeko eta, hala badagokio, neurri egokiak, diziplina neurriak edo beste izaera batekoak hartzeko.

Erakundeak gai horretaz duen irizpidea gomendio honetan jasota dago: Arartekoaren 7/2011 Gomendio Orokorra, urriaren 28koa, Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa (II.1.1.atala).

Gomendioan, Arartekoak adierazi du poliziako arduradunek herritarren kexak edo salaketak kontuan izan behar dituztela, kexa horien berri modu batera edo bestera izan arren, eta kasu guztietan ikertu eta argitu beharreko lehenengo aztarnak direla, iruzurrezko adierazpenak edo sinesgaitzak ez badira behintzat.

Halaber, azpimarratu dugu ikerketa zabaltzeak ez duela esan nahi kexari sinesgarritasun osoa ematerik ezta polizien profesionaltasuna zalantzan jartzerik; aitzitik, funtsezko tresna da prebenitu eta, halakorik balego, jarduketa desegokiei antzeman eta zuzentzeko.

Arartekoak bere gomendioan nabarmendu duenez, ikerketaren edukiak egokia eta nahikoa izan behar du aztertzen ari den egoera argitzeko. Era berean, azpimarratu du ikerketan gertatutakoa argitzeko benetako esfortzua egin behar dela eta baliagarriak diren ikerketa aukera guztiak agortu behar direla gertaerak argitu ahal izateko.

Gomendioan polizia ikerketa abian dagoen zigortzeko prozedura batekin batera gertatzeko aukera aztertu dugu, eta erakunde honen esku-hartzearen eremua murriztu dugu egoera horretan.

Ikerketa zigortzeko prozedura batekin batera gertatzeari dagokionez, honako hau zehaztu da:

“Ohikoa da, polizia jarduerari buruzko kexak eragiten dituzten egitate batzuk, aldi berean, jurisdikzio penalaren azterketa pean egotea, esku-hartzea gertatu bitartean atxiloketa bat edo atxiloketarik gabeko egozte penal bat gertatu delako edo nahastutako pertsonen salaketa penala jarri dutelako polizien kontra, edo inguruabar biengatik.

Halako kasu askotan ohikoa da, halaber, gertakariak argitzeko egin duten ikerketari buruz galdetzen dugunean, administrazioek prozedura judizial bat izapidetzen ari direla eta egoera horrek ikerketa edo are Arartekoak jardun ahal izatea baldintzatzen duela esatea.

Zalantzarik gabe, kexa bat eragin duten gertakariengatik prozedura penal bat bideratzeak zenbait muga ezartzen dizkiela polizia administrazioei gai horretan, hala nola prozesuan epaitzen ari diren jokabideak zigortzeko galarazpena, zehapen ebazpena eman ahal izateko auzitegien epaiari itxaron beharra eta jurisdikzio ordena horretako epai irmo batek halakotzat jotzen dituen gertakariak frogatutzat jotzea. Hori dena, ordena penala administrazio ordenari nagusitzeko printzipioa aplikatzearen ondorioz.





Hala ere, uste dugu inguruabar horrek ezin diela galarazi administrazio horiei salatutako polizia jarduera ikertzea ezta behar diren parametroen arabera izan dela egiaztatzea ere.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak, gure iritziz, planteamendu horren alde egiten du, prozedura penala polizien aurkakoa den kasuei buruz hitz egiten duenean honela baitio: *“Euskal Herriko Poliziako kideen aurkako prozedura penala hasteak ez du galaraziko egitate horiengatik lehenagoko argibideak edo legokiokoen diziplina espedientea agintzea eta, beharrezkoa balitz, espedientea egin zaiena behin-behinean kargugabetu eta egokiak diren gainerako badaezpadako neurriak hartuko dira. Halarik ere, prozedura horiek ez dira behin betiko ebartziko arlo penaleko epaia irmoa izan arte, eta hark dakarren egitate frogatuen adierazpenak administrazioa lotuko du”* (9.15 art.).

Halako kasuetan funtsezkoa da prozedura penalean zer epaitzen den zehazki ezagutzea. Gure ikuspegitik, ez da berdin polizia funtzionarioen portaera ala poliziaren esku-hartzea dela-eta egindako argiketan jasotako gertakariak izatea. Bigarren kasuan, auzitegiak ez du kexa eragin duen polizia jarduera aztertzen, delitua edo hutsegitea leporatzen zaion pertsonaren portaera baizik eta, beraz, ikertu beharreko gaian ez legoke auzitegien esku-hartze zuzenik.

Argiketan jasotako egitateak epaitzen direnean, gainera, egotzitako pertsonaren absoluzioa poliziaren esku-hartzearen desegokitasun edo gehiegikeria zantzua izan liteke, baina haren kondenak ez luke inolaz ere esan nahi poliziaren portaera egokia izan zenik. Elkar orekatzen ez duten legez kontrako jardura bi batera gertatzea baino ez litzateke.

Polizien aurkako salaketa judiziala egondako kexa askotan, auzitegien epaiaren ondoren ez zaio ikerketari berrekiten salaketa artxibatzen bada edo epaia absoluziokoa bada. Berriz esan behar dugu gertakari askok garrantzi penalik ez izateak ez dakarrela berez polizia jardueraren zuzentasuna, bete behar zituen arauen arabera izanaren ikuspegitik, ezta bestelako erantzukizunik ez egotea ere, hala nola diziplinakoa, epaitzeko eremu desberdinak direlako.

Hori guztia dela-eta, uste dugu justiziak esku hartzen duen kasuetan polizia agintariek hastapeneko ikerketa bat egin behar dutela, adierazi dugunaren arabera, eta epaiaren ondoren ere poliziaren portaeraren azterketa zorrotza egin behar dutela, arlo penalean egindako epaiketa adierazitako ikuspegitik egindako poliziaren jokabidearen balorazioarekin osatuz.” (II.1.1.b atala)

Euskadiko Poliziari buruzko Legearen aipamena ulertu behar da gaur egun lege horren testu bateginari erreferentzia eginez, uztailaren 22ko 1/2020 Dekretu Legegileak onartutakoa (138. art.).





Kasu horietan Arartekoaren esku-hartzearen esparruari dagokionez zera azaldu dugu gomendioan:

“Arestian adierazi dugunez, Arartekoak eskatzen dienean administrazioek ez ikertzeko edo eskatutako informazioa ez emateko erabili ohi dituzten arrazoietakoa bat, gure esku-hartzea erabat arbuiatzea da, argudiatuz gertakariari lotutako prozedura penal bat ari dela izapidetzen.

Kexa eragin duen polizia jardura berari lotutako gertakariengatik prozedura judizial penala izapidetzeak, jakina, muga handiak dakartzkio erakunde honi, batez ere otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13.1 artikulutik eratorriak, honela baitio: *“Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko”*.

Hala ere, uste dugu artikulua horrek ez duela guztiz baztertzen gure esku-hartzea halako kasuetan. Zalantzarik gabe, jurisprudentzia penala ezagutzeko gordetako kontu zehatzak aztertzea eta haiei buruzko iritzia ematea galarazten dizkigu. Baina, gure irizpidearen arabera, galarazpen horrek ez digu ukatzen halako kexetan gure esku-hartzea kokatzen dugun prebentzio arloan jardutea, polizia arduradunei adierazi ditugun arauen arabera ikertzeko eskatuz eta arau horiek bete direla egiaztatuz.

Gure aburuz, aipatu manua ez da oztopoa erakunde honek polizia arduradunek burutu duten ikerketari buruzko informazioa jaso ahal izateko. Ezta, gure iritziz, prozedura judizialean sartzen ez diren kexaren beste alderdiak aztertu edo kasuan Arartekoak euskal herri-administrazioen mendeko polizia-kidegoei zuzendu dizkion beste gomendio orokorrak bete diren egiaztatu ahal izateko, herritarrei dagozkien eskubideen aurkako balizko jarduerak prebenitzeko lanaren esparruan.

Gure ustez, azken batean, inguruabar horrek ezin liteke oztopoa izan administrazioek helburu horrekin burutu dituzten jarduerak Arartekoari jakinarazteko.

Gure aburuz, daukagun interpretazioa bat dator Konstituzioak (art. 43 eta 54.) ezarritako askatasunak eta oinarrizko eskubideak bermatzeko sistemarekin; izan ere, haren arabera jurisdikzio arrunta, Konstituzio Auzitegia eta herriaren defendatzailea sistema ixteko tresnak dira. Hortaz, Konstituzioak osagarri eratzen ditu erakunde horiek, eta haien esku-hartze esparrua ordenamendu juridikoak bakoitzari emandako eginkizunen arabera dago ezarrita; beraz, haien jardura bat etor liteke kasu berean, zeinek bere xedea izanda bada ere.”

2. Europako Kontseiluaren Poliziaren Etikaren Kode Europarra, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren 22. artikulua (uztailaren 22ko 1/2020





Dekretu Legegileak onartutakoa) horren mende jartzen baititu berariaz aginte eta Euskadiko poliziaren langileak; bada, etikaren kodeak estatu kideei ikerketa sustatzea eta bultzatzea gomendatzen die.

Ildo beretik, testu bateginak agindu argia ematen die administrazio publikoei kexak tratatu eta ikertzeko prozedura eraginkor eta inpartzialak ezar ditzaten, erantzukizuna bideratu eta herritarren eta poliziaren arteko komunikazio eta ulermenean oinarrituz, nahiz eta ustezko praktika txarretako kasu zehatzetara mugatzen den (13.2 art.),

Aipatutako testu bateginaren aurreikuspenak dagoeneko jasota zeuden kexak eragin dituen polizia jarduketa gertatu zenean, hain zuzen ere Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean (6. artikulua, ekainaren 27ko 7/2019 Legeak emandako bertsio berrian).

3. Aurrekarietan azaldu den moduan, Segurtasun Sailak Arartekoari eman dion informazioaren arabera, sail horrek gertaeren ondorengo martxoaren 31n barne ikerketa abiarazi zuen agente jarduleek diziplina arau haustea egin ote zuten ebazteko.

Erakunde honek egokitzen du aipatutako sailak ikerketa hasi izana eta mekanismo hori aktibatzeaz azkartasuna izatea, ulertzen baitu jokatzeko modu hori bat datorrela urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrekin (II.1.1 atala).

Hala ere, Arartekoak azaldu behar du ikerketa ezin dela diziplinaren eremura mugatu; aitzitik, zabalagoa izan behar du, eta irismen orokorragoa eduki behar du.

Gogoratu behar da ikerketaren helburua poliziaren jarduketaren inguruabarrak argitzea dela, eta ebaztea errespetatu behar zituen jarraibide eta arauetara egokitu ote zen, jarraibide eta arauak diziplinakoak izan zein bestelakoak.

Segurtasun Sailak erantzun egin du bai erakunde honek hasierako balorazioan plazaratutako eragozpenen aurrean, bai garatutako ikerketari dagokionez informatzeko egindako eskaeren aurrean; adierazi duenez, gertatutakoari lotuta Ertzaintzak izapidetutako atestatuen ondorioz zigor bide judizialean lantzen ari diren alde aurreko diligentziak *"agenteen aurkako ustezko delitu bategatik"* izapidetze fasean daude. Gaineratu duenez *"ekintzak sub judice daudenez, Agintaritza judiziala egiten ari da ustez delitu izan daitezkeen ekintza batzuk argitzera bideratutako jarduketak"*, eta ezin du eragin ikerketa judizial ireki batean.

Aipatutako balorazioak oinarritzat hartzen du zigor epai irmo batek gertatutakoa frogatutzat emateak lotura legala duela polizia administrazioarentzat (Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 91. artikulua, gertaera jazo zenean, eta lege horren testu bateginaren 138. artikulua, gaur egun Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplinazko Araudiaren 26.1 artikuluari dagokionez).

Sailak dioenez, horren ondorioz, *"ez dauka, oraingoan, gertatutakoari buruzko ondoriorik edo egiaztapenik eta hortaz, ezin du diziplinazko erantzukizunik dagoen ala ez erabaki"*.

Arartekoaren aburuz, kexa eragin duen polizia jarduketari buruzko barne ikerketa urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean ezarritako parametroetan ez egiteko





Segurtasun Sailaren arrazoiek ezin dute justifikatu jokatzeko modu hori, gomendioan bertan azaldutako arrazoienatik, lehenago aipatu ditugunak.

Emandako justifikazioaren ondorioz erakunde honek berriz ere errepikatu behar du zigor ikerketa judiziala eta barne ikerketa plano desberdin eta osagarrietan kokatzen direla. Ikerketa judizialaren helburua balizko zigor erantzukizunak argitzea da; polizia administrazioaren beraren organo edo instantziek egiten duten ikerketa, edo eremu juridikotik kanpoko bestelako instantziek egindako ikerketek, aldiz, polizia jarduketaren inguruabarrak berehala argitzeko funtzioa daukate, eta egiaztatu behar dute protokolo, jarraibide edo agindu aplikagarriak zuzen bete diren, baita, hala badagokio, beharrezko neurriak ezarri ere, salatutako egoera zuzendu eta berriz gertatzea saiheste aldera.

Duela gutxi onartutako Euskadiko Poliziari buruzko Legearen testu bateginak, erakunde honen aburuz, aipatutako irizpidea babestu zuen berariaz aurrekusi baitzuen biak aldi berean existituko zirela, batetik, Euskadiko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeari agindutako ikerketa, eta, bestetik, aztertutako gertaerei lotutako zigor ikerketa (19.4 art.).

Gogoratu behar da, Segurtasun Sailak berak erakunde honi eman dion informazioaren arabera, kasu honetan zigor jurisdikzioan gaztea eta ama atxilotzea eragin zuten delituak ari direla ikertzen, ez agenteen jokabidea.

Berriz adierazi behar dugu ikerketa berehala egitea erabakigarria dela mekanismo horrek gertatutakoa argitzeko duen xedea gutxieneko eraginkortasun berme batzuekin bete ahal izan dezan. Helburu hori kinka larrian jarriko litzateke ikerketa beharrezko azkartasunez hasiz gero, baina ondoren eten egin bada horrela jokatea justifikatu ezin duten arrazoiaren babespean, gure ustez, kasu honetan gertatzen den moduan.

Egiaztatu behar da, bestalde, Segurtasun Sailak ez diola erakunde honi ordura arte egin duten ikerketaren edukiaren berririk eman, ezta barruan bideratutako ikerketa jarduketan berri ere, nahiz eta erakunde honek berariazko interesa agertu zuen. Informaziorik eza ere ez du justifikatu.

Zoritxarrez, Arartekoak esan behar du Segurtasun Sailak ikerketa hasi zuenetik bost hilabete baino gehiago joan diren honetan, hasieran erakunde honi eman zion informazioaren arabera, bere barruan egindako ikerketa jarduketak ez dituela bukatu, ezta baloratu; horrek, erakunde honen aburuz, eta berriz ere nabarmendu behar da, ez du inolako justifikaziorik, eta ezin da sailak babestzat hartzen dituen arrazoietan justifikatu.

Emandako informazioa ikusita nabarmendu behar dugu, halaber, ikerketaren helburua ez dela soilik balizko zigor edo zehapen erantzukizunak argitzea. Irismenak, berriz diogu, diziplina eremua gainditzen du.

Esandakoaren ondorioz, Arartekoaren aburuz, Segurtasun Sailak eman duen informazioak, kexen hasierako balorazioari erantzunez, ulertuz kexak eragin dituen polizia jarduketaren barne ikerketa ez dela egokitzen urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean aipatutako parametroetara (II.1.1 atala), eta parametro horien arabera ikerketa egiteko eskatuz, ez du balorazio hori aldatzea ahalbidetzen, eta, hortaz, horri eutsi behar dio.





Halaber, aurreko gogoetaren ondorioz, erakunde honek berriz gogorarazi behar dio Segurtasun Sailari esparru horretako gomendioa eta hura betetzea bermatzeko behar diren mekanismoak eratzeko beharra, besteak beste, arlo horretan jardun-protokolo argi eta zehatzak ezartzea.

4. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean Arartekoak adierazi du indarra erabiltzeak azken baliabidea izan behar duela beti, eta gainera, erabilitako indarrak egokitasunaren, beharraren eta proportzionaltasunaren legezko printzipioak modu hertsian errespetatu behar dituela eta arrazoizko epaian oinarrituta egon behar duela; horretaz gain, hierarkiako gainekoek kontrolatu eta egiaztatu behar dute kasu bakoitza. Era berean, agenteek argi utzi behar dute zergatik erabili duten indarra, zer arrazoik justifikatzen duen erabaki hori eta parte hartzea zehazki nola garatu den ere adierazi behar dute, erabilitako indarraren deskribapen zehatzarekin batera. Halaber, adierazi izan da, jarduketa behar bezala dokumentatuta geratu behar dela, ondoren neurriaren kontrola egin ahal izateko. Era berean adierazi du indarra polizia bulegoetatik kanpo erabiltzen denean, hura izanik egoerarik ohikoena, polizia dagokien kontrol zentroari euren jardueraren zioak jakinarazi behar dizkiotela (II.2.1 atala).

Gomendioan ikuspegi materialetik ere aztertu da indarraren erabilera (IV. atala) eta hau adierazi da:

“Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko maiatzaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak ezartzen du polizia funtzionarioek modu honetan jardun behar dutela euren eginkizunak gauzatzekoan: “beharrezko erabakitasunez eta berandutu gabe, horren arabera denean kalte larri, berehalako eta konponezin bat saihestea; jarduterakoan, gainera, kongruentzia, egokiera eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan” [5.2.c) art.]

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak printzipio hori berretsi egiten du, kideek, beren eginkizunak gauzatzekoan, honela jardun behar dutela xedatzen baitu: *“beharrezko erabakitasunez, indarrak arrazoizkoa dena baino harago baliatu gabe; gainera, egokitzapen, premia eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan” (34.1. art.)*

Konstituzioko jurisprudentziaren arabera, proportzionaltasunaren printzipioa errespetatzeko, oro har, hartzen den neurriak honako baldintza hauek bete behar ditu: a) lortu nahi den helbururako egokia izatea (egokitasun printzipioa); b) beharrezkoa izatea, hau da, egokitasunari dagokionez berdina den eta xede bera lortzeko horren garestia ez den beste neurririk ez egotea (beharraren printzipioa); eta c) neurri horrekin interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago sortzea estualdian dauden ondasun edo baloreen gainean eragozpenak baino (proportzionaltasunaren printzipioa zentzu hertsian).

Proportzionaltasun printzipioa indarra erabiltzeari aplikatzeko, erabaki hori egokia izan behar da lortu nahi den helburua erdiesteko. Modu berean, horrek





esan nahiko du, helburu hori erdieste aldera, ez dagoela horren garestia ez den eta egokia den beste neurririk eta neurri horrek ez duela saihesten dituenak baino kalte larriagorik eragiten.

Halaber, lortu nahi den xederako ahalik eta indar gutxien erabili behar da. Horrek esan nahi du, erabilitako bitartekoa kaltegarria ez dena izan behar dela eta kaltegarria ez den moduan erabili behar dela.

Hori dela eta, kasu bakoitzean bat egiten duten inguruabar zehatz guztiak zehaztasunez ezagutzea funtsezkoa da indarra barne hartu behar izan duen poliziaren jarduera bakoitza baloratu ahal izateko. Horregatik, indarra erabiltzea kontrolatzeko mekanismo zehatzak aztertzerakoan agerian jarri duguna errepikatu dugu, hau da, neurriaren legezotasunari buruzko epaiketa egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak behar bezala dokumentatu behar direla.

Era berean, azpimarratu behar dugu indarra erabiltzea, istiluak konpontzeko neurri gisa, ahal den guztietan saihesten duten konponbide berriak aztertzea egokia dela. Ikuspuntu horretatik, uste dugu erabilgarria izango litzatekeela polizia-agenteeek bitartekotza tekniken eta gatazkak konpontzeko modu alternatiboen arloan prestakuntza jasoko balute, bai eta lan horretan espezializatu diren lan taldeak ezartzea ere. Hori guztia bitartekotza mekanismoak jarri eta sustatzeko moduan egon daitezen, esku-hartze batean gerta daitezkeen tentsio-egoerak desagerrarazteko asmoz."

Kasu honetan ere Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen aipamena ulertu behar da gaur egun lege horren testu bateginari erreferentzia eginez, uztailaren 22ko 1/2020 Dekretu Legegileak onartutakoa (29. art.).

Horrez gain, gogoratu behar da gomendioan Auzitegi Konstituzionalaren urtarrilaren 16ko 11/2006 Epaia aipatu zela, proportzionaltasunaren printzipioaren inguruan Auzitegiaren doktrinaren adibide eta laburpen gisa.

Aurrekarietan esan bezala, Segurtasun Sailak hasieran erakunde hau informatu zuen agenteetako batek gaztearen aurka indarra erabiltzeko arrazoien inguruan, honako hau esanez: *"Gizon horren jokabide jarraitua desobedientzia-delitua izan zitekeelakoan, atxilotu zuten, gizon horren erresistentziari aurre egiteko, defentsa erabiliz."*

Esan bezala, Sailak ez zuen une horretan gaztearen amaren aurka aplikatutako indarraren inguruan ezer jakinarazi.

Ez zuen, ezta ere, inolako baloraziorik egin bi kasuetan indarra erabiltzea justifikatuta egoteari dagokionez, ezta proportzionaltasun printzipioa errespetatzeari dagokionez ere, horiexek baitziren kexan nabarmendutako gaiak.

Sare sozialetan eta komunikabideetan zabaldutako polizia jarduketaren bideo grabazioa, beraz, ez zuen baloratu. Nolanahi ere, beste froga elementurik gabe (Arartekoan ez zen beste frogarik aurkeztu), bideo grabazioak, erakunde honen





aburuz, babestu egiten zituen horren inguruko kexetan plazaratutako eragozpenak, azaldu bezala.

Emandako informazioa aski ez zenez, erakunde honek berriz ere jo zuen Segurtasun Sailarengana, erabilitako indarra justifikazioaren eta proportzionaltasunaren ikuspuntutik ebalua zezan, eta balorazio horretan kontuan har zezan aipatutako bideo grabazioa; nolana ere, betebeharrak horretan sailak bestelako frogak elementuak ere kontuan har ditzake, edukiz gero.

Arartekoak aipatutako sailari azaldu zionez, bidenabar, beharreko proportzionaltasun epaian aztertu beharko luke, kasuaren inguruabarrei erreparatuz, beharrezkoa izan ote zen indarra erabiltzea edo bestelako disuasio formulak erabili ahal ziren, are bide hertsatzaile ez horren kaltegarriak ere, esaterako gaztearen immobilizazioa; horrela, indarra erabiltzea saihestuko lukete.

Horrez gain, azaldu zion kontuan hartu behar zutela polizia jarduketaren bideo grabazioan ikusten zela agenteak ez zuela soilik bere arazko defentsa erabili, informazioan esan bezala; aitzitik, hori egin aurretik bazirudien gazteari ukabildakada bat ere eman ziola aurpegian, eta agenteak erabat immobilizatuta zutenean, bizkarretik besoa oratuz eta aurpegia pareta aurka jarriz, berriz ere polizia makila erabili zuela gaztearen aurka.

Gure eskariari erantzunez, Segurtasun Sailak honako informazioa igorri dio Arartekoari:

"Indarra azken baliabide gisa, modu beharrezko eta proportzional batean erabiltzearen justifikazioa jarduketaren testuinguruan eta garapenean bertan aurki daiteke; izan ere, koronabirusaren ondoriozko pandemiak eragindako alarma-egoeratik (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua) konfinamendu bete-betean geunden.

Ertzaintzako kideek gizon bat identifikatu zuten ustez konfinamendua urratu zuelako. Egin beharreko izapideak amaitu ondoren (denbora horretan zehar agenteak saiatu ziren etengabe segurtasun-tartea gordetzen), lekutik alde egitekotan zeudela, inplikaturik, salaketa-aktekin, haietako batengana zuzendu zen bere desadostasuna oihuka erakutsiz eta ertzainaren aurpegitik berrogei zentimetro eskasera gertatu zen, mehatxuzko doinuarekin koronabirusa zeukala esatearekin batera. Agenteak atzera egin eta gazteari ez hurbiltzeko ahoz zein keinuz adierazi bazion ere, gazteak ez zuen kasurik egin. Azkenean, kutsatzeko mehatxuaren eta etengabeko desobedientziaren aurrean, agenteak gazteari bultzada bat eman zion, hurbil zedila eragozteko, eta bere erregelamenduzko defentsa erabili zuen, gaztea hormaren aurka gerarazteko eta eskuburdinak jartzeko, eta horretarako bere lankidearen laguntza behar izan zuen,

Horretan zebiltzala, bertan emakume bat agertu zen atxilotutakoaren ama zela esanez eta agenteen aurka borrokatzen hasi zen bere semearen atxilotuta eragozteko, atxilotutakoa harengana arrastatzen saiatzen zen bitartean, eraman ez zezaten.



Agenteetako batek, hainbat aldiz, lortu zuen emakumea metro batzuetan urrutiratzea, baina emakumeak jarraitu zuen atxilotetaren lekura hurbiltzen saiatzen eta polizia-lana oztopatzen. Bertan zegoen agenteak emakumeari behin eta berriz agindu zion hortik kentzeko eta atxiloteta ez eragozteko, baina emakumeak, berriz ere kasurik egin gabe, jarraitu zuen gaztearengana hurbiltzen saiatzen, telefonoz hitz egiten zuen bitartean; eta azkenean horren ondorioz, emakumea atxilotu zuten eta lurzoruaen kontra gerarazi zuten.

Egintzen azalpen honetan falta da hori gazteak eta bere amak eman dezaketen bertsioarekin alderatzea, jarduketan zehar erabilitako indarraren proportzionaltasunaren inguruko ondorioz atera aurretik.

Erakunde honek eskatutako informazioari erantzun zion sailak, bere ustez indarra aplikatzea justifikatu eta proportzionaltasunaren printzipioa errespetatu zuten arrazoiak adieraz zitzaizkien, eta erantzun horretan honako hau esan zuten:

“Agenteek jokatu zuten moduan jokatu zuten, gizonaren etengabeko desobedientziari erantzuteko eta gaztea agentearengana hurbiltzeak mehatxu jarraitu errealtzat jo zutelako. Dena den, ikerketaren arduradunek ez daukate horren inguruko ondorioz, ezta horren inguruan hartutako erabakia argudiatzeko arrazoirik ere.”

Erakunde honek esandakoaren haritik, indarra erabili zuen agenteak ukabilkada bat eman ziola gazteari aurpegian polizia makila bere aurka erabili aurretik, bada horren haritik sailak honako hau esan zuten:

“Grabazioan ikusten da gaztea espaloitik galtzadan dagoen agentearengana hurbiltzen dela eta agenteak, ezkerreko eskua luzaturik daukala (eskuan latezko eskularru bat darama), gaztea bularrean joz bultzatzen duela, segurtasun-tartea gordetzeko.”

Eta gaztearen amak konortea galdu izana eta egoera horretan poliziaren ibilgailura eramateari lotutako informazioari dagokionez, sailak honako hau esan du:

“Grabazioan ikusten da emakumea lurzoruaen kontra geldiarazten dutela eta, eskuburdinak jarri ondoren, zutitzen dutela eta bere kabuz oinez doala polizia-ibilgailuraino, eta ibilgailu hori galtzadaren beste aldean zegoen.”

Arartekoak bideo grabazioa berrikusi du berriz ere, kontuan hartuz aipatutako inguruabarren inguruan Segurtasun Sailak argitutakoa; ondoren, onartu behar du hasieran esandakoa, polizia makila erabili aurretik agenteak gazteari aurpegian ukabilkada emateari dagokionez esandakoa, alegia, beharbada okerra dela. Irudietan, hain zuzen ere, agentea ikusten da, ezkerreko eskua gaztearen aurka luzatzen. Baina, horrez gain, eskua aurpegitik oso gertu eta indartsu jotzen ere ikusten da, eta une jakin batean ez da ikusten; hortaz, lehen unean erakunde honek ulertu zuen kolpea gaztearen aurpegian izan zela, eta kolpea ukabilkada gisa hartu zen.

Argitu behar da, nolana ere, erakunde honentzat garrantzitsua dela, eta hasierako balorazioan hala nabarmendu nahi izan zela, gaztearen aurka indarra



aplikatzea ez zela izan soilik polizia makila hasieran erabiltzea; bestelako adierazpenak ere izan ziren.

Bestalde, sailarekin hitzartu genuen bideo grabazioan, dirudienez, gaztearen ama ikusten dela polizia ibilgailura bere kabuz iristen; horrek baztertu egingo luke une horretan konorterik gabe egon zela zioen ideia, zenbait informaziok esan bezala.

Erakunde honen iritziz, inguruabar horrek ezin du justifikatu kexen alderdi hori ez ikertzea edo ez argitzea; gure ustez, bereziki beharrezkoa da gogoan hartuz gero ibilbidearen irudiek, duten kalitateagatik, ez dutela aukerarik ematen berez horren inguruko ondorio kategorikorik ateratzeko.

Bestalde, irudiek, dirudienez, erakusten dute emakumea lurrian etzanda egon zen denbora tarte gehienenean inerte posizioan egon zela, eta berak hala berretsi zuen komunikabide batzuen aurrean zorabiatu zela azaldu zuenean.

Gure ustez, salaketaren larritasunak, nolana ere, eskatzen du Segurtasun Sailak kexen alderdi hori ikertu eta argitzea, gaia argitzeko erabilgarriak diren eta bere esku dituen baliabide guztiekin.

Aurrekoa alde batera utzita, erakunde honen aburuz, erabilitako indarrari dagokionez emandako informazioak ez dio erantzuten, oro har, hasierako balorazioan eskatutakoari, ezta bestelako gaiei, eta ez du elementu nabarmenik ematen Segurtasun sailak hasierako erantzunean eman zituenekin alderatuta. Horrez gain, informazioak oraindik ez du gaztearen amaren aurka erabiliko indarra argitu ezta baloratu.

Horren ondorioz, Arartekoak berriz ere nabarmendu nahi du Segurtasun Sailak gaztearen eta amaren aurka aplikatutako indarra justifikazioaren eta proportzionaltasunaren ikuspegitik aztertu behar duela, eta proportzionaltasuna ebaluatzean aztertu behar duela ea agenteei eskatu ahal zitzaizen gaztearen inguruabar pertsonalei erreparatzea, eta agenteen jarduketa ezaugarri horietara egokitzea, eta kontuan hartzea, halaber, polizia jarduketaren bideo grabazioa, hain zuzen ere, berriz nabarmendu behar delako, erakunde honen aburuz, kexetan salatutako proportzionaltasun eta justifikaziorik eza.

Bideo grabazioak emandako informazioari erreparatuz, Arartekoaren ustez zalantzazkoa da kasu honetan indarraren erabilerak proportzionaltasunaren epaia gainditzea. Bestelako azalpenik ezean, eta kasu honen inguruabarrak kontuan hartuz, ez dirudi indarra erabiltzea neurri posibleen artean kalte txikiena eragingo lukeen neurri bakarra zenik bitarteko hori erabiliz lortu nahi zen helburua lortzeko; emandako informazioaren arabera, helburua gaztea eta ama atxilotzea zen; nolana ere, atxilotetei dagokienez aurrerago bestelako oharrak egin ahalko dira ikuspegi orokorrago batetik.

Gaztearekin indarra erabiltzea justifikatzeko Segurtasun Sailak hasieran emandako azalpenak ikusita, nahitaez zehaztu behar da bideo grabazioaren arabera ez dirudiela gazteak erresistentziarik agertu zuenik atxilo har ez zezaten.

Nolana ere, Arartekoak ulertzen du Segurtasun Sailaren lana dela justifikatzea erabilitako indarra proportzionaltasunaren printzipiora egokitu zela; berriz esan behar dugu orain arte ez dela horrelakorik egin.





Arartekoak bereziki nabarmendu behar du oso kezkarria dela polizia jarduketa gertatu zenetik bost hilabete baino gehiago joan diren honetan Sailak ez duela oraindik gaztearen eta amaren testigantza jaso, eta ez du erabilitako indarraren baloraziorik egin.

Bestalde, nabarmendu behar da, halaber, Segurtasun Sailak ez diola erakunde honi jakinarazi indarra erabiltzearen inguruko barne kontrola urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitako inguruabarretan (II.2.1 atala) egin duen, eta ez du kontrol hori jasota utziko lukeen agiririk aurkeztu, aurkezteko eskatu zaion arren.

Datu hori ez da justifikatu, eta horren inguruko informaziorik eza gure ustez ez dago justifikatuta. Hortaz, Arartekoak ezinbestean ulertu behar du Segurtasun Sailak ez duela kasu honetan horren inguruan emandako gomendioa bete, eta berriz ohartarazi behar zaio, bete dezan.

Kasu honetan gertatutakoak agerian uzten du, bidenabar, indarra gatazkak konpontzeko eta tentsio egoerak desaktibatzeko modu gisa erabiltzea ahal den neurrian saihestuko duten bideak aztertu behar direla.

5. Segurtasun Sailak hasieran Arartekoari emandako informazioa ez dator bat erakunde honi kexen bitartez emandakoarekin, gazteak duen gaixotasun mentalagatik bide publikoan ibiltzeko baimena izateari dagokionez.

Horrenbestez, eta erakunde honek ez duenez gertatutakoaren inguruan bestelako froga elementurik kexetako bertsioaz gain, Arartekoaren ustez ez zegoen aski oinarri sailak emandako informazioaren kontra egiteko.

Hala ere, gazteak aipatutako agiria aldean eraman zein ez, erakunde honen ustez Segurtasun Sailak ebatzi egin behar zuen agenteei gaztearen inguruabar pertsonalei erreparatzea eskatu ahal zitzaie, eta agenteen jarduketa ezaugarri horietara egokitzea, lehenago azaldu bezala. Izan ere, emandako azalpenak ikusita, gazteak hasieran bere osasun mentalaren egoeraren berri eman zien agenteei, eta, bideo grabazioaren arabera, amak ondoren insistentziaz eta desesperazioz egin zuen, gertaerek hartu zuten bidea ikusita. Horrez gain, telefonoz eskatu zuen aipatutako dokumentua etxetik bidal diezaioten; dirudienez gertaeren lekutik oso gertu bizi da; antza denez, bukaeran ez zen horrelakorik egin, egoeraren beraren bilakaera ikusita.

Bestalde, erakunde honetara jo zuten zenbait pertsonak Arartekoan aurkeztu zuten informazioaren arabera, gaztea etxera zihoanean geldiarazi zuten, gertuko elikagai denda batean mendafina erosi ondoren.

Datu hori egiaztatuz gero, gazteak poltsan zeraman landarea, Segurtasun Sailak erakunde honi emandako informazioak aipatutakoa, aurrekarietan jasota geratu dena, hortaz, mendafin landarea zen; landare hori Marokon tea prestatzeko osagaietako bat da, eta, dirudienez, gaztea eta ama sortzez Marokokoak dira.

Erakunde honek ulertzen duenez, hala bada, gaztea bide publikoan ibiltzea martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7.1.a) artikulua babesean egon





daiteke, alarma egoera deklaratu zuena, dekretu horrek, besteak beste, joan-etorriak elikagaiak erosteko baimendu baitzituen.

Aurrekarietan esan bezala, Arartekoak hasierako balorazio horren berri eman zion Segurtasun Sailari, bi datu horiek polizia jarduketaren barne ikerketan zuzen argitu eta aztertu behar zituela ohartaraziz; nolahi ere, aipatutako neurriak ez betetzeagatik gaztearen aurka agenteek aurkeztutako salaketaren ondorioz, hala badagokio, gaztearen aurka izapidetzen ari ziren zehapen prozeduran ere kontuan har zitezkeen.

Aipatutako sailak ez dio erakunde honi egindako balorazioari buruzko inolako informaziorik eman, eta ez du, ezta ere, jokatzeko modua justifikatu, nahiz eta ikerketari buruz emandako informaziotik, emandako inguruabarretan, ondorioztatu daitekeen ez zuela adierazitakoaren arabera jokatu.

Horren ondorioz, Arartekoak puntu honetan hasierako balorazioa errepikatu behar du, eta sailak aipatutako balorazioaren arabera jokatu behar duela berriz ere nabarmendu behar da.

6. Bigarren aldiz kolaboratzeko eskatu zaionean Segurtasun Sailak erakunde honi eman dion informazioaren arabera, gaztea eta ama aginte agenteen aurkako ustezko delitu bategatik atxilotu zituzten.

Hala ere, informazio hori ez da hasieran sailak eman zuenaren berdina; hasieran eman zuenaren arabera, azaldu bezala, gaztea atxilotu zuten bere jarduna agenteekiko desobedientzia delitua izan zitekeela uste zutelako.

Arartekoaren ustez, atxilotzeko arrazoiaren inguruan emandako informazioa desberdina izatea modu egokian argitu behar da.

Gure ustez, Segurtasun Sailak baztertu egin beharko luke ondoren gazteari agenteen aurkako atentatu delitua egozteak loturarik izan zezakeenik polizia jarduketak ekarri zuen erantzun sozialarekin; erakunde honen ustez, horretarako jarduketaren analisia egin behar da urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorraren II.2.3 atalean adierazitako ikuspegiarekin, eremu horretan muga gainditzeak saihesteko:

Aipatutako atalean, zehatz-mehatz, honako hau ageri da:

“Azken urteotan zenbait pertsonak jo dute erakunde honetara euren aurka egindako argiketen edukiarekin ados ez daudela adierazteko, haien ustez poliziek ez zutelako zintzotasunez islatu gertatutakoa, euren jardura eragin zuten gertakariei dagokienez. Halaber, kexa batzuek arazo behar agertu dute poliziek arau-hauste administratiboengatik egindako salaketei buruz²⁵. Erreklamaziogileek horrela lotzen zituzten jokabidea eta poliziek ondoren balizko polizia jardura desegokia zurrizteko egindako ahalegina edo erakunde honek “kontrasalaketa” deritzona; funtsean, honakoan datza: poliziak, euren esku-hartzeak hura zalantzan jarri duen pertsonak kexa edo salaketa jartzea ekar dezakeela sumatzen dutenean, aurreratu eta haren aurkako salaketa egiten dute.





Oso kezkarria deritzogu halako portaera arbuigarriak gertatzeari. Badakigu ez dela erraza haiei aurka egitea, baina gertatzen direnean polizia eginkizunen gehiegikeria da eta eginkizun horiek betetzeko legezkotasun itxuraren pean mozorrotu ohi dira. Jakin badakigu, arazoak sortzen direla arlo horretan gehiegikeria bat egin dela frogatzeko, hain zuzen ere, jardueraren legezkotasun itxura horregatik. Horrexegatik jotzen dugu funtsezkotzat polizia arduradunak jakitun izatea ordenamendu juridikoak poliziei argiketa edo administrazio salaketa egiteko ematen dien ahalmena neurritz gain erabil daitekeela eta praktika horiek saihestu eta, gertatuz gero, antzeman ahal izateko kontrol tresnak ezartzea.”

7. Abiapuntutzat hartuta “San Frantzisko inguruan atzerriko pertsonekin izandako polizi jardunak” txostena [8. gomendio zehatza, b) atala], Arartekoak hainbat aldiz ohartarazi du polizia agenteek bide publikoan pertsona batengana gerturatzeko duten moduak, oro har, eragina duela gertaeren ondorengo bilakaeran.

Aurrekarietan esan bezala, erakunde horrek kexen hasierako balorazioan ulertu zuen kexak eragin zituen polizia jarduketa ere ikuspegi horretatik aztertu behar zela; izan ere, aurkeztutako bideo grabazioaren arabera, agenteek egoera hartan eman zuten erantzuna erabakigarria izan zitekeen gertaeren ondorengo bilakaeran.

Balorazio horri erantzunez, eta Segurtasun Sailak horren inguruan egindako analisia Arartekoari emateko eskaerari erantzunez, sail horrek honako hau esan du:

“Ikerketaren ondorioak esku artean izan bezain pronto administrazio honek zehatzago aztertuko du egoeraren konponbidea egokia izan zen ala ez eta garapena nolakoa izan zen, eta aldi berean, horri buruz hartu beharreko erabakiak hartuko ditu.”

Erakunde honen aburuz, aipatutako informazioak ez ditu planteatutako galderak erantzuten, eta ezin du, ezta ere, justifikatu aipatutako analisia oraindik egin ez izana, lehenago azaldutako arrazoiengatik.

Horrenbestez, Arartekoak berriz ere nabarmendu behar du Segurtasun Sailak aipatutako ikuspegitik aztertu behar duela poliziaren jarduketa.

8. Arartekoak badaki alarma egoeran Ertzaintzak oso baldintza zailtan egin behar izan duela lan, batez ere hasieran, kexa eragin duen polizia jarduketa gertatu zenean; badaki, halaber, une horretan eta oraindik gaur egun ere izugarriko esfortzua egiten ari dela COVID-19ak eragindako pandemiak irautearen ondorioz.

Erakunde honek badaki, halaber, kexa eragin duen polizia jarduketak tentsioa ekarri zuela, baina zehaztu behar da, aurkeztutako bideo grabazioa ikusita, ez zirudiela polizia jarduketaren aurretik tentsioa zegoenik; aitzitik, bizilagun batzuek haien etxebizitzetatik protestatzen zuten neurrian sortu zen tentsioa, haien ustez jarduketa desegokia, bidegabea, desproporzionatua eta justifikaziorik gabea zelako.





Etxebizitzetatik objektuak jaurtitzea, Segurtasun Sailak erakunde honi hasieran igorritako informazioan aipatu zena, ondorengo uneetan ere gertatu zen, aipatutako bideo grabazioaren arabera.

Erakunde honek Ertzaintzari dion errespetu eta aitortzatik, baita pandemiari eta horren ondorioz bere gain hartzen ari den arriskuei lotuta Ertzaintzak egiten duen lan garrantzitsuari dagokionez ere, Arartekoak ezinbestean nabarmendu behar du inguruabar horiek ezin dituztela inolaz ere ez polizia kidego horren jarduketak ez babestu, ez justifikatu, herritarren eskubide eta askatasunekiko errespetuzkoak ez badira, eskubide eta askatasunak libreki baliatu ahal izatea Ertzaintzak konstituzionalki babestu behar baitu (EK 104. art.).

Gogoratu behar da, halaber, Ertzaintzaren funtzioek eskatutako konfiantza eta errespetua galtzea edo Ertzaintzak ematen duen zerbitzuaren prestigioa zalantzan jartzea ekar dezakeen edozein jokabide saihestu behar dutela Ertzaintzaren parte direnek; halaber, herritarrekiko harremanetan tratu zuzen eta zaindua eduki behar dute (Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 30. eta 30bis artikulua, gertaerak jazo zirenean, eta legearen testu bateginaren 24. eta 25. art., gaur egun).

Arartekoak aurreko oharrak helarazi zizkion Segurtasun Sailari kexen hasierako balorazioan, eta ohartarazi zion polizia jarduketa ikuspegi horretatik aztertu behar zuela, ulertzen baitzen, zabalduetako bideo grabazioa ikusita eta polizia jarduketak eragindako erantzun sozialari jarraiki, jarduketaren esparru legal hori ezin izan zela kasu horretan errespetatu.

Eskaera horri sailak eman dion erantzuna aurreko atalean jasotakoaren berbera da, hau da:

"Ikerketaren ondorioak esku artean izan bezain pronto1 administrazio honek zehatzago aztertuko du egoeraren konponbidea egokia izan zen ala ez eta garapena nolakoa izan zen, eta aldi berean, horri buruz hartu beharreko erabakiak hartuko ditu."

Arartekoak, horrenbestez, puntu honetan berriz ere kexen hasierako balorazioa errepikatu behar du, eta sailari eskatu behar dio aipatutako analisia egin dezan.

9. Dagoeneko esan da Arartekoak ezin duela esku hartu justizia epaitegiak gai jakin batzuen jakinaren gainean badaude, kexak eragin dituzten bi atxiloketen kasuan gertatzen den moduan, eta ezin du, ezta ere, horren inguruko adierazpenik egin (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. art.).

Bidenabar, esan den moduan, horrek ez du alde batera uzten erakunde honek eta Segurtasun Sailak atxiloketak beste esparru batzuetatik aztertzea, alegia prebentzioaren eta gomendioak betetzen direla kontrolatzeko esparrutik, otsailaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitako inguruabarretan, lehenago ere aipatu dena.

Prebentzioaren ikuspegitik eta ikuspegi orokorretik, kexen hasierako balorazioan azaldu zuenez, erakunde honen aburuz Segurtasun Sailaren betebeharra zen bi





atxiloketak aztertzea, hain zuzen ere jokabide hura kasu horretan sortutako egoerak konpontzeko egokia ote zen argitzeko.

Bere erantzunean, Segurtasun Sailak ez dio erakunde honi horri buruzko inolako informaziorik eman; hortaz, Arartekoak sail horri berriz ere ohartarazi behar dio aipatutako analisia egin behar duela.

10. Azaldu den moduan, Arartekoak Segurtasun Sailari eskatu zion, inguru horretan instalatutako bideo zaintza polizialerako kameretan poliziaren jarduketa filmatuz gero, bideo grabazioen kopia aurkez zezan, baita horien inguruan egindako balorazioa ere.

Arartekoak eskaera hori egin zuen ulertu baitzuen irudiak bereziki lagungarriak izan zitezkeela gertatutakoa argitzeko.

Sailak eskaera horri erantzun dio, honako hau esanez: *"Guk dakigula, jarduketa polizialari buruz bideozaintza polizialerako kamerek grabatutako irudirik ez dago"*.

Erantzunaren anbiguitasunak ez du aukerarik ematen aipatutako sailak irudi horien berririk ez izatea azaltzeko. Gure iritziz, kontua ez da hutsala; izan ere, ikerketaren ikuspuntutik, ez da gauza bera horren berririk ez izatea egiaztatze lanak egin direlako eta ikusi delako ez dagoela jarduketa erregistratu duen bideo kamerarik, edo, aitzitik, inolako egiaztatze lanik egin ez izana.

Erakunde honen aburuz, gertatutakoa filma zezaketen bideo zaintza polizialeko kamerak egotea egiaztatzea eta, ondoren, filmatutako irudirik ote zegoen egiaztatzea ezinbesteko jarduketa da esku hartze polizial baten barne ikerketan, esan dugun moduan, irudi horiek ekarpen izugarria egin zezaketelako, irudiok existituz gero, gertatutakoa argitzeko.

Horrenbestez, Segurtasun Sailak datu hori argitu behar duela eta horren ondorioz jokatu behar duela uste dugu.

11. Euskal herri-administrazioen legezko betebeharra da Arartekoak eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide oro lehentasunez eta premiaz ematea, Arartekoak bere egitekoak bete ahal izateko. Eskatutako informazioa ez ematea gure lanari oztopoak jartzea dela dio legeak. Legez oztopatze bezala hartzen da eskatutako informaziorako sarbidea zailtzen duen jarduera oro (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. art.).

Arartekoaren iritziz, Segurtasun Sailak kasu honetan ez du behar bezala bete legeak agindutako betebeharra. Lehenago esan den moduan, kexen hasierako balorazioan erakunde honek eskatutako gaien inguruan, oro har, ez du erantzunik eman; hortaz, erakunde honen aburuz, berriz nabarmendu behar dugu, ezin da justifikatu sailak emandako arrazoiekin. Horrez gain, sailak ez du ezta justifikatu eskatutako datu batzuen inguruko informaziorik eza.

Segurtasun Sailak ez ditu, ezta ere, atestatua eta polizia jarduketa eta atxiloketak dokumentatu zituzten gainerako erregistroak igorri, edo erabilitako indarra eta barne kontrola, erakunde honek eskatu zizkion arren.





Eskaera horri erantzunez, Arartekoa sailaren instalazioetara joatera gonbidatu baino ez du egin, egokitzat jotako egiaztapen lanak egitera, inolako arrazoirik eman gabe azaltzeko zergatik ezin duen eskatutakoa aipatutako inguruabarretan bete, zeina, beste batzuetan azaldu den moduan, bestalde, sailaren ohiko erantzuna izaten den erakunde honek antzeko eskaerak egin dizkionean.

Azalpenik jaso ez duenez, Arartekoak ez du ulertzen Segurtasun Sailak zergatik ez duen bete dagokion lege-betebeharra, erakunde honek eskatutako dokumentuak lehenetasunez eta presaz emateko.

Arartekoaren iritziz, berriz ere esan behar da, bere eginkizunak burutzeko behar duen informazioa eskuratzeko ordenamendu juridikoak hainbat bide aurreikusten dituen arren, horien artean bat edo bestea hautatzea erakunde honi ez beste inori dagokio. Horrek ez du eragozten, hala badagokio, beste bide batzuk erabiltzeko aukera aztertzea, administrazioak horretarako arrazoiak azaltzen dituenean. Kasu honetan, hala ere, ez da horrela gertatu.

Zehaztu beharra dago, berriz ere, erakunde honek kasu honetan hautatu zuen bidea behar duen informazioa eskuratzeko erabili ohi duena dela.

Arartekoak ezin du, horrenbestez, eskatutako dokumentazioa ez igortzeko Segurtasun Sailak babestzat hartzen duen justifikazioa onartu.

Beste batzuetan esan den moduan, Arartekoak eskatutako gaiari ez erantzutea edo erantzuna aski ez izatea eragozpen izugarria da Arartekoari legez dagozkion funtzioak normaltasunez betetzeko, inolako justifikaziorik gabe funtsezko elementuak kentzen dizkiolako jasotako informazioa kontrastatu eta aztertu behar duen administrazio egoera zein den jakin ahal izateko. Horrez gain, erakunde honetara jotzen duten pertsonen eskubideak larriki kaltetzen dituzte, hain zuzen ere eskubide horiek babesteko ordenamendu juridikoak pertsona haien esku jartzen duen tresna bat erabiltzeko jotzen baitute gure erakundera.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Kexaren arrazoia den polizia jarduketa iker dezala Poliziaren jardura eta praktiketako berme sistemari buruzko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.1.1 atala) jasotako gidalerroei jarraituz.
2. Ikerketan azter dadin agenteei eskatu ahal zitzaaien gaztearen inguruabar pertsonalei erreparatu izana, eta agenteen jarduketa inguruabar horietara moldatzea.
3. Ikerketak kontuan har dezan, halaber, gazteak agian bazuela baimena bide publikoan ibiltzeko, dirudienez zeraman landarea mendafina izanez gero.





4. Gaztearen eta amaren aurka aplikatutako indarra justifikazioaren eta proportzionaltasunaren ikuspegitik azter dezan, eta baloratu dezan Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean bildutako gidalerroen arabera (II.2.1 eta IV atalak).
5. Aplikatutako indarraren proportzionaltasun analisian azter dezan, halaber, agenteei eskatu ahal zitzaizen gaztearen inguruabar pertsonalei erreparatu izana, eta jarduketa horri moldatu izana; kontuan har dezan, bidenabar, polizia jarduketaren bideo grabazioa.
6. Sortutako egoerari agenteek emandako erantzuna "San Frantzisko inguruan atzerriko pertsonekin izandako polizi jardunak" txostenak azaldutako ikuspegitik azter dezaten [8. gomendio zehatza, b) atala], ebazteko erantzuna erabakigarria izan ote zen gertaeren ondorengo bilakaeran.
7. Azter dezaten agenteen jarduketa bat etorri ote zen eskubideak eta askatasunak babesteko Ertzaintzak sortzez duen eta deontologia kodean jasota dagoen funtzioarekin.
8. Gaztearen eta amaren atxiloketen inguruko analisia prebentzioaren ikuspuntutik eta ikuspuntu orokorretik egin dezan, ebazteko jokatzeko modu hori egokia izan ote zen kasu honetan sortutako egoeraren modukoak konpontzeko.
9. Agenteen jarduketa berriak dezan, aipatutako gainerako parametroekin alderatuz.
10. Beharrezko mekanismoak ezar ditzan Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra betetzea bermatzeko, aipatutako alderdietan eta oharretan aipatutako gainerako jardun ildoetan.

